

# 4

## Euskarak duen *Framing Berri* baten premia asetzeko proposamena Txostenari buruz hausnarketak

**Maria-Jose Azurmendi**

UPV/EHUko Ohorezko Laguntzailea

ehu-azurmendi@telefonica.net

Sarrera-data: 2012-10-10 / Onartze-data: 2012-12-15

**Laburpena.** Iñaki Martínez de Lunaren lanari erantzuteko, Euskal Herrian izan diren aurrekariak gogoratu ditu Maria-Jose Azurmendik. Proposamen berriaren inguruko azterketa zorrotza eginez, antzematen dituen zailtasun nagusienei erreparatu dio. Funtsean ados egonik, hau da, orain arteko *Framing Aldarrikatzailearen* (euskararen aldekoa) eta *Framing Uzkuurraren* (euskararen kontrakoa, indiferentea edo ambibalentea) arteko kontrakotasuna gainditu beharra dago, proposamen berrian sendotu beharreko hainbat kontzeptu azaleratuz eta eztabaidarako gai berriak planteatuz, batez ere, euskararen frame berriak izan beharko lituzkeen lehen inguruan eta erabiltzen den terminologiaren inguruan. • **Hitz-gakoak:** psikosoziolinguistika, hizkuntza-jarrera, komunikazioa, euskara.

**Abstract.** In reply to Iñaki Martínez de Luna's paper, Maria-Jose Azurmendi recalls the precedents there have been in the Basque Country. When rigorously analysing the new proposal, she has focussed on the main difficulties she has encountered. She basically agrees, in other words, it is necessary to overcome the contradiction that has existed so far between *assertive framing* (in favour of Basque) and *reluctant framing* (against Basque or indifferent or ambivalent towards it), by exposing the many concepts that need to be consolidated in the new proposal and raising new issues for debate, particularly, on the slogans that the new framing of Basque will need and on the terminology that is used. • **Key words:** Psychosociolinguistics, language attitude, communication, Basque.

Hausnarketekin hasi baino lehen esan beharrean nago pozik irakurri dudala Iñakiren Txostena, euskarak duen *Framing Berri* baten premia asetzeko proposamena izeneko hau, besteak beste: 1) lana bera berezia delako, aberatsa eta trinkoa, eta adierazten duen proposamen berria eztabaidarako bultzatzen gaituelako, 2) berriro ere BAT aldizkariak proposatzen digulako oinarritzko lan baten inguruan zenbaitzuk hausnarketak egin eta iritziak emateko. Biei, Iñaki eta BAT aldizkaria, nire zorionak!

Esan bezala, lana aberatsa da euskararen mundua aztertzen duelako modu anitzean, baina gehienbat honako ikuspegi batetik begidatua: euskararekiko hedabideen (prentsa, batez ere) informazioa eta balorazioaren eragina, nagusiki pertsonetan, komunikazio teoriarik diskurtsoak duten garrantzia. Aberatsa ere lan teoriko eta enpirikoak lotzen dituelako, aurretik jadanik ditugun zenbait adituen ikerketak erabiliz, hautemateak + iritziak + ... aztertuz, azken hamarkadako bilakaera eta eguneko egoera nolakoa den adieraziz, halako “estado de la cuestión” modukoa eskainiz, benetan eskertzekoa dena, beti ere gerora begira erakargarria izango den *Framing Berri* bat eraikitzeke asmoarekin. Horrela eginez, bereizten ditu orain arte komunikazioan erabili diren, edo ditugun, bi diskurtso eredu nagusiak: Iñakik *Framing Aldarrikatzailea* eta *Framing Uzkurra* deitzen dituenak, bakoitzaren abantailak eta eragozpenak aztertuz, bien arteko joera ezberdinak azalduz eta gero noraino diren joera kontrakoak ala osagarriak eztabaidatuz, eta nola beharrezkoa den, eta zaigun, *Framing Berria* eraikitzea: 1) bai aurreko bi *Framing Aldarrikatzailea* eta *Uzkurra* direnetik zenbait ezaugarri mantendu eta lotuz, 2) baita beste ezaugarri berri batzuk ere erantsiz.

Aberatsa izateaz gain, ausarta ere bada, kontuan hartzen baditugu: 1) alde batetik, aurreko bi ereduak zenbait ezaugarri ezberdin (kontraesanezkoak ere?) arabera definituz gain, euskal-komunitatean bi populazio mota edo gizarte-talde ezberdinak (eta kontrakoak ere?) sortzeko eta definitzeko ere baliagarriak izan direlako; 2) bestalde, dagoen egoera zatitua gainditu beharra dagoela esaten delako ere, lortu nahi bada Euskara izatea euskal-komunitate guztiaren osagai positiboa, aktiboki positiboa, eta hori lortzeko proposatzen zaigu *Framing Berriaren* beharra.

**Aberatsa izateaz gain, ausarta ere bada, kontuan hartzen baditugu: euskal-komunitatean bi populazio mota edo gizarte-talde ezberdinak sortzeko eta definitzeko ere baliagarriak izan direlako; bestalde, dagoen egoera zatitua gainditu beharra dagoela esaten delako ere, lortu nahi bada Euskara izatea euskal-komunitate guztiaren osagai positiboa, aktiboki positiboa, eta hori lortzeko proposatzen zaigu Framing Berriaren beharra.**

**BAT aldizkariko  
86, 2013 zenbaki  
honen helburuak:**

**1) Iñakik  
proposatzen  
digun azterketa  
sakona  
adieraztea eta  
sozializatzea, 2)  
ondoren,  
oinarrizko lan  
honen inguruan  
beste zenbaitzuen  
iritziak eta  
ideiak ere  
jasotzea, 3)  
elkarren-  
artekotasuna  
bultzatuz, egin  
beharrekoa  
egokiago  
bideratu nahian.  
Nik ere horixe  
nahi dut,  
eztabaidan parte  
hartzea artikulu  
honen bitartez,  
nire neurrian.**

zean eta, bereziki, espero baino gutxiago lortuz. Egia esan, harrigarria dela iruditzen zait ikustea zenbait ekimen eta egitasmo irekiak izan diren, eta zenbait erakunde, talde eta pertsona inplikaturik dauden egunean ere, euskararen alde ekiteko!: nire iritziz, beste mirari bat euskararen inguruan. Horrela, eguneko bi Framing horiek suposatzen dutena gainditu nahian, denentzako izango den *Framing Berria* eraiki eta bultzatu nahia, egitasmo nekeza izango dela iruditzen zait, modu ezberdinetan kritikaturia ere, nahiz eta beharrezkoa den. Ausarta ba, esan bezala.

Azpinarratu behar da ere lanean proposatzen zaigun euskararekiko eredu berria, edo *Framing Berria*, aski osatua dagoela. Hala ere, estimagarri da eztabaidarako proposamena dela jakitea, beste zenbait ekarpenak egiteko gonbidatuz, ziurtasun eta adostasun handiagorekin onartzeko, plangintzarako eta inplementatzeko. Hauek dira, hain zuzen ere, BAT aldizkariko 86, 2013 zenbaki honen helburuak: 1) Iñakik proposatzen digun azterketa sakona adieraztea eta sozializatzea, 2) ondoren, oinarrizko lan honen inguruan beste zenbaitzuen iritziak eta ideiak ere jasotzea, 3) elkarren-artekotasuna bultzatuz, egin beharrekoa egokiago bideratu nahian. Nik ere horixe nahi dut, eztabaidan parte hartzea artikulu honen bitartez, nire neurrian. Hala ere, egia esango badut, aitortu beharrean nago nire buruan luze eztabaidatu dudala Iñakiren Txostena, zenbait aldeko eta kontrako iritziak sortu zaizkidala, eta eztabaida honetik BAT aldizkarian parte hartzea ere asko kostatu zaidala, zer esan eta zer ez erabakitzerakoan: nire ikerketa ibilbide luzean harritzen nauena, egia esanda. Nire artikulu honetan, lanaren alderdi batzuk bakarrik aipatuko eta eztabaidatuko ditut orain.

## **1. FRAMING BERRIA EREDUAREN AURREKARIAK**

### **I**

#### **1.1 Aurrekariak orokorrean**

Euskararen alde egiten zirenen, eta direnen, lortutako emaitzak eskasak zirela eta direla, eta zerbait egin beharra genuela egoera hobetzeko, nahiko aspalditik jakitun gara. Adibidez, gertukoenetik hasita, BAT aldizkari hau bera horren transmisio + azterketa + eztabaida + ... egiteko tresna egokia izan zaigu, aurreko zenbakiak kontutan hartzen baditugu; alderdi honetatik ikusita, estimagarria da oraingo zenbaki honetan modu orokorragoan, esplizituagoan eta argiagoan behar honi erantzun bat eman nahi izatea, *Framing Berria* eredu proposatuz.

Bestelako aurrekariak ere baditugu, batzuk esplizituagoak beste batzuk baino, bide ezberdinak erabiliz. Horrela, asko dira euskarari buruz ditugun azterketak, egoera ezagutzeko eta hobetzeko helburuarekin

eginak, batez ere 1970 hamarkadatik orain arte, mota ezberdinekoak, banakoak eta taldekoak, instituzio publikoenak eta erakunde soziale-  
nak..., asko erakutsi digutenak: liburuak, artikulua, kongresuetan ko-  
munikazioak, jardunaldietan lanak...; gainera, hauek gehienetan kon-  
tuan hartu ohi dute nazioarteko adituek eta hizkuntza ezberdinetan  
esaten zutena, baliagarria zitzaigulakoan gurenerako ere, adibidez orain  
katalana hizkuntzarekin gertatzen zaigun bezala. Ibilbide honetan,  
1970an garai berri bat irekitzen da, Euskaltzaindiak eskatuz + Caja La-  
boreal erakundeak ordainduz + SIADEKO ikerketa-taldeak zenbait adi-  
tuen bitartez bideratuz, hiru liburu aurkeztu ziren: *Euskararen liburu  
zuria/ Libro blanco del euskara* (1978), *Hizkuntza borroka Euskadin/ Conflicto  
lingüístico en Euskadi* (1979), *Euskararen normalizaziorako plangintza/ Pla-  
nificación de la normalización lingüística* (1979), askoentzako lehen aurrekari  
garrantzitsua izan zena, eta dena.

Gertuagoko adibide gisa, honakoa aipatuko nuke hemen: *Euskararen  
erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta/ Estrategias para fomentar  
el uso del euskera desde la escuela/ Stratégies pour développer l'utilisation de  
la langue basque à partir de l'école* izeneko liburu hirueleduna (Kontseilua,  
2009), orain arte dakiguna bildu nahian ere (Txostenean esaten denaren  
osagarri modukoa guk har dezakeguna ere pentsatuz, *Framing Berriaren  
helburu bat delako euskararen aldeko erabilera bultzatzea*), besteak  
beste arrazoi hauengatik:

1. 2008an Kontseiluak lortu zuen adostasuna hezkuntza-sektoreko  
bazkide guztien artean: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa  
(EHIK), Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarketa (EHIGE), Kristau  
Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz eta Hi-hasi, helburu honen inguruan: eus-  
kararen normalizazio osoa erdieste, euskararen erabilera erdigunean  
jarriz, horretarako eskolaren (edo hezkuntzaren) garrantzia azpima-  
rratuz; nondik datorren ikusita, adostasun horren sozializazio zabala  
lortu dela pentsatuz, hemen aipatzea ezinbestekoa iruditu zait;
2. Nahiz eta eskolak euskalduntzen ari diren, ez eskolak bakarrik  
noski, euskararen erabilera ez dago handitzen, kezka nagusia dena  
normalizazio ibilbidean eta helbururako;
3. Erabilerari buruz zer den ezagutzen dugunaren galderari eran-  
tzunez, honako iturriak aztertu zituztelako: 1) Fergusonek diglosiari  
buruz esandakoak; 2) Fishmanek erabilerarako erdigunean jarri zi-  
tuen gertuko harremanen (familia, lagunartea, auzoa, eguneroko  
harremanak...) garrantzia; 3) Sánchez Carriónnek (Txepetx) erabilera  
lotzen duelako ezagutza maila eta motibazioarekin; 4) Alvarez En-  
parantzak (Txilardegi) erabilera lotzen duelako ezagutzarekin, hiz-

---

**Nahiz eta eskolak  
euskalduntzen  
ari diren, ez  
eskolak bakarrik  
noski,  
euskararen  
erabilera ez dago  
handitzen, kezka  
nagusia dena  
normalizazio  
ibilbidean eta  
helbururako.**

ketakide tamainarekin eta leialtasuna edo atxikimendurekin; 5) Garciak erabilera lotzen duelako testuinguruko euskararen presentziaren dentsitatearekin eta norbanako ezaugarri hauekin: euskararen gaitasun maila eta euskal identitatea; 6) Martinez de Lunak eskaintzen duen eskema erabileran eragiten duten, positiboki (daude ere oztupoak), hiru faktoreen artekotasuna adieraziz: (1) norbanako ezaugarriak: gaitasun erlatiboa eta motibazioa, (2) harreman sareak: aldeko baldintza demolinguitikoa euskaldunen arteko harremana sareak, (3) gizartearen egitura (eremuak eta erakundeak): euskara erabiltzeko ageriko onarpena eta hizkuntzaren gizarte ospe eta erakargarritasuna (erabilgarria, balio sinbolikoa, arrakasta eredu...); 7) Isasik aurkeztutako erabilera ebaluatzeko eredu matematikoa;

4. Gainera, diziplina ezberdinen beharra “euskararen erabilera” ondo aztertzeko aipatzen dute ere: “psikologiak eta pedagogiak hizkuntzen ezagutza eta jabetza dituzte aztergai gisa, soziologiak erabilera, psikologia sozialak jarrera, ideologia, besteak beste”. Honi nik erantsiko nioke diziplina ezberdinen “artekotasuna” ere dela beharrezkoa;

5. Gehien bat, DISKURTSOAREN zeregina ere lantzen delako, honi berebiziko garrantzia emanez ere: “argumentuak eman behar dira euskara jakiteak dakarren onuren inguruan eta erabilera sustatzeko duen motibazioa aktibatu behar da esparru guztietan” esanez; diskurtsua berritzearen beharrean, honako oinarriak aipatzen dituzte euskararekiko: 1) euskararen ezagutzak aukera berdintasunerako atea zabaltzen du; 2) euskara euskal kulturaren ondare adierazgarriena da; 3) aukera berdintasuna bideratzen den neurrian, herritarrek kohesionatzen laguntzen da; 4) euskarak ezagutzeak onurak dakartza, ez du inongo kalterik; 5) euskarak komunikaziorako tresna eragingarria izan behar du; 6) eskolatik espero dena adieraziz; 7) euskararen izaera modernoa erakutsiz.

## 1.2 Aurrekariak, Iñakiren Txostenean

Aipatutako bi aurrekari horien artean, kokatzen dira Iñakiren txostenean erabiltzen diren euskararekiko azterketa enpiriko gehienak: 1) batzuk jadanik argitaratuta zeudenak, baina orain elkarrekin lotuta emanez, modu sintetikoan, eta zenbait bereizketa aberatsa eginez emanda, genuen ezagutza aberasteko aproposa izan dena, nire kasuan behintzat; 2) beste ikerketa berri baten emaitzak eskainiz: Euskara eguneroko prentsan izenekoak, 3. atalean aurkezten duena (27 or.), berak (eta beste batzuen artean agian?) eginikoa.

Bi kasuetan, honako bereizketa orokorrak erabiltzen dira, emaitzak zailkatzerakoan: 1) euskararekiko irizpideak sailkatzerakoan: honako bi eredu *Framing Aldarrikatzailea/ Framing Uzkurra* osatzen dutenak; 2) komunikazioaren helburu nagusiaren arabera: informatiboak/ baloratzatzaileak direnak; 3) albisteari nolako kutsua ematen zaion, eta albisteak nolako sentipenarekin jasotzen diren arabera: baikorrak/ ezkorrak/ neutroak/ anibalenteak (azkeneko hiruak Framing uzkurrean sartuko liratekeenak)... Eraitza huen analisia eginda gero, ondorioa da desgokiak direla eta, horregatik, proposatuko da beste eredu berri bat, *Framing Berria* deituko dena, euskararen alde eragina zabalagoa eta handiagoa lortu nahian.

Horrela ba, Iñakiren Txosten honek behar honetan sakontzen du, euskarak duen *Framing Berri* baten premia asetzeko proposamena eskainiz: momentu egokian datorrena, horren zain geundelako, eta modu aberatsean eta erakargarrian ere datorrena.

## 2. FRAMING BERRIA EREDUAREN BEHARRA

Iñakiren Txostenean nahiko argi esaten zaigu: 1) euskararen normalizazioan gehiago eta hobeto eragitea beharrezkoa zaigula, 2) helburu horretarako diskurtso berri baten beharra azpimarratuz, bide ezinbestekoa dena eta garrantzitsuenetakoa izan daitekeena, horretarako *Framing Berria* eredu proposatuz. Txostena oso mamitsua da, behin baino gehiagotan irakurtzea komeni den horietakoa; baina nik orain aukeratu ditudan gauza batzuen inguruan bakarrik arituko naiz, pentsatuz eztabaidarako egokiak izan daitezkeela, eta beste partaideek esango dutenenaren osagarriak gertatuko direla. Ohizkoa den bezala, laburpen gisa, gehien aipatuko ditudan orain izango dira: hasierako laburpena eta bukaerako azken gogoetak, euskararekiko aldaketa berrien beharra nondik datozen jakiteko. Laburbilduz:

1. Hasierako laburpenean aipatzen den bezala, XX. mendeko 1960ko hamarkadatik hasten da, euskararen unibertsoaren inguruan zenbait aldaketa eman diren adieraziz, euskararekiko beste etapa bat irekiz; bertan argi-ilunak badaude ere, balorazio baikortasunaren aldekoa dela aitortuz (nik horren argi ez dudana). Baina XX. mende bukaeran, eta batez ere XXI. mende hasieran, euskararekiko beste etapa batean sartzeko gara, agian argiagoa eta kritikoagoa dena, horregatik "euskarak egun duen auzirik larrienari erreparatuko diogu: nolakoa den euskal gizartea euskarari dagokionez eta, halaber, euskararen

***Txosten honek sakontzen du, euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena eskainiz: momentu egokian datorrena, horren zain geundelako, eta modu aberatsean eta erakargarrian ere datorrena.***

**Euskaltzaleen  
ohiko  
diskurtsoak  
zailtasunak eta  
mugak ditu,  
egunean,  
euskararen  
aldeko neurriak  
zalantzan jartzen  
dituelako, eta  
mezu  
gatazkatsuegiak  
erabiltzen  
dituelako, aldeko  
giroa birsortu  
beharko du,  
beren  
planteamendua  
jauzi kualitatibo  
bat eginez:  
euskararen  
aldeko Framing  
Berria baten  
eraikitzean parte  
hartuz.**

unibertsoak nola joka lezakeen iritzi publiko horren aurrean. Izan ere, gure ustez, euskararen etorkizunerako berebiziko bidegurutzeara binomio horretan datza: euskara versus iritzi publikoa” (14 or.), azpimarratuz: 1) lehenbizi euskararen errealitatearen hautematea eta irudikapena gidatu dituzten egitura kognitiboak ezagutu beharra dugu, 2) komunikazio politikoak, eta komunikabideak, dituzten ezaugarri kognitiboaren teoriak erabiliz, euskararen diskurtsoak nola eraikitzen diren eta nolako eraginak dituzten ikusteko, 3) azken finean, “iritzi publikoak dituen euskararen hautematea eta irudikapena aldarazteko eta aldekoagoa bihurtzeko asmoz, zabal litezkeen bide berriak proposatzea” (14 or.) nahian.

2. Eta bukaerako azken gogoetak ematerakoan, honako ideiak azpimarratzen dira:

- Euskaltzaleen ohiko diskurtsoak zailtasunak eta mugak ditu, egunean, euskararen aldeko neurriak zalantzan jartzen dituelako, eta mezu gatazkatsuegiak erabiltzen dituelako, aldeko giroa birsortu beharko du, beren planteamendua jauzi kualitatibo bat eginez: euskararen aldeko *Framing Berria* baten eraikitzean parte hartuz.
- Orain arteko *Framing Aldarrikatzailea* (euskararen aldekoa) eta *Framing Uzkurra* (euskararen kontrakoa, edo indiferentea, edo anbibalentea) arteko kontrakotasuna gainditu behar da, horretan partehartzea bultzatuz eta adostasuna lortuz, biak euskarara bil daitezten. Horretarako: 1) *Framing Aldarrikatzaileak* aldatu behar ditu: klabe nazionalistan ulertzen den dimentsio identitarioa, gizarteak pairatzen duen bortizkeria sinbolikoa, diskurtso zaharkituaren gabeziak; 2) *Framing Uzkurak* aldatu behar ditu: euskararen mamuak uxatu, euskararen kontrakotasuna indargabetzea. Horrela, biak parte hartu behar dute *Framing Berria* ereduaren eraikitzean eta erabiltzean.
- *Framing Berria* ereduaren ardatza nagusia osatuko da hiru planteamendu hauen oinarri filosofikoak kontutan hartuta: 1) berdintasunaren diskurtsoa, 2) hizkuntzen iraunkortasuna (nik esango nuke hobe dela jasangarritasuna lantzea), 3) hizkuntzen ekologia. Hirurak partekatzen dituzte zenbait ezaugarri, edo balio: (1) aniztasuna, (2) holismoa, (3) interakzioa, edo artekotasuna, (4) berdintasuna... Hau da: kontrajarriak diren ezaugarriak, bakoitzaren nazionalismo eta identitate linguistikoak adibidez, gaindituz → euskararen aldeko elkarlanean aritzea, euskararen defentsa denen artean eta gizarte guztiak bideratzea

(ez bakarrik orain arte euskaltzaleek egiten zutena), beste ideia eta ezaugarri batzuk erabiliz eta azpimarratuz.

- *Framing Berria* horrela osatuko da: 1) alde batetik, orain arteko bi Framing ezberdinen zenbait balio eta ezaugarri neurriren batean mantenduz, gaurkotuz ordea, denonak eginez: neurri baten identifikazio linguistikoa, euskararen defentsa, hiztun mota guztiak berdintasunean eta diskriminaziorik gabe tratatuak izatea, askatasun osoz hizkuntza aukeratzea; 2) bestalde, beste balio eta ezaugarri berriak ere partekatuz, adibidez gorago aipatutako hiru planteamendu filosofikotik datozenak, denon artean diskurtso partekatuak eta antzekoak erabiltzeko. Azken finean, helburua da gizarte osoak euskararen alde egitea, nahiz eta neurri ezberdinetan izan, batez ere diskurtsoak eraiki eta erabiltzerakoan (Txostenaren aztergai nagusia dena).

- *Framing Berria* hiru modutan erabili daiteke errealitatea sortzeko: 1) euskararen aldeko ulermena (iraganarena eta etorkizunarena) eraikitzeko, 2) gizartearen, komunikabidearen eta herritarren agintarien agendetan euskara finkatzeko, 3) herritarrak euskararen aldeko jarduerara bultzatzeko.

---

***Azken finean, helburua da gizarte osoak euskararen alde egitea, nahiz eta neurri ezberdinetan izan, batez ere diskurtsoak eraiki eta erabiltzerakoan (Txostenaren aztergai nagusia dena).***

### **3. FRAMING BERRIA EREDUAREN EZAUGARRIAK**

#### **I**

#### **3.1 Eraikitzerako prozesua**

Berriz ere laburbilduz, *Framing Berria* eredu eraikitzerakoan: 1) diskurtso berriaren edukiak elaboratu eta planifikatu behar dira, kaleratu baino lehen, 2) marketineko estrategia eraginkorra ere erabili beharko da, eragina zabala eta handia lortu ahal izateko. Horretarako, honako pausoak segitzea proposatzen da, beti euskararen inguruan:

1. Euskararen inguruko merkatua euskal gizarte osoa izanik, sektore bakoitzeko premiak, iritziak, jarrerak..., ondo ezagutzea, merkatu ikerketa eginez, hizkuntza-merkatuaren mapa osoa izateko.
2. Sektore bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuta, xede-talde ezberdinak finkatzea, merkatuaren segmentazioa eginez, bakoitzarentzat *Frame Berriaren* eduki egokienak zehaztea, mezu egokiena bideratuz.
3. Herritar askok barneratuko dituzte planteamendu edo diskurtsoen alderdi (priming) osoaren ezaugarri batzuk bakarrik: errazenak zaizkionak; horregatik xede-talde bakoitzarekiko aukera eta egokitze bat egin beharko da.



**Sektore  
bakoitzaren  
ezaugarriak  
aintzat hartuta,  
xede-talde  
ezberdinak  
finkatzea,  
merkatuaren  
segmentazioa  
eginez,  
bakoitzarentzat  
Frame Berriaren  
eduki egokienak  
zehaztea, mezu  
egokiena  
bideratuz.**

4. Informazioa helarazteko, komunikazio-estrategia orokorra pres-tatu behar da: erabilgarri diren baliabide eta aukera mota guztiak onartuz.

5. Aipatutako elementuak, edo alderdiak, konbinatu eta sailkatu behar dira, hartzaile mota bakoitzari egokiena izango dena mugatuz.

6. Interbentziorako aukerak mugatuak izan ohi direlako, lehenta-sunaren arabera antolatu behar dira, eraginkortasun eta efizientzia printzipioen arabera, xede-talde bakoitzerako.

7. Komunikazio saioren eragina eta emaitzak balioesteko prozedurak eta mekanismoak diseinatu eta martxan jarri behar dira.

8. Balioespenak esango du zertan asmatu den eta zertan ez, horren arabera *Framing Berriaren* komunikazioa hobetzeko, edo birbidera-tzeko, neurriak finkatu eta hartzeko.

### 3.2. Eraginaren mugak

Txostenean esaten dena praktikara emanez, mezuak modu positiboan adierazten dira gehienbat, egia delako mezu positiboak, edo positiboak ez badira ere modu ahalik eta positiboenean adierazten badira, erakar-garriagoak direla, eta horrela eraginkorragoak ere, hartzaileentzat. Hala ere, txostenean bertan aipatzen dira muga batzuk; adibidez:

1. “Gizarte sektore batzuen ustez, egungo egoera soziolinguistikoak ez dio euskarari ematen abantaila handirik eskaintzen hizkuntzen merkatuan lehiatzeko, jasotako iritzien bildumak erakusten duen bezala (1-8 taulak). Hortaz, *gizarte-sariaren* ideiak ez du leku nabar-menik, gaur egun, *Framing Berriko* osagaietako bat izateko. Izan ere, komunikazio-estrategia batean transmititu nahi den mezuak sinesgarria izan behar du lehenik eta behin, bestela kontrako efektua eragin lezakeelako. Hortaz, *Framing Berri*an oraingoz *gizarte saririk* (ia) erabiltzen ez dagoen arren, baliteke baldintza berri batzuek ha-lako helduleku sendo baten aukera aurrerago ahalbidezea” (77 or).

2. Gure optimismoa bultzatzeko, esango nuke halako “gizarte-sa-riak” batzuk hasiak direla gurenean, adibidez: *BAT* aldizkari honetan bertan baditugu bost zenbaki (69, 74, 78, 82, 85) jasotzen dituztenak “Hausnartu. Euskal Soziolinguistika Sariak” izenean zenbait ikerketa sarituak bideratu direnak, eta gure hausnarketa soziolinguistikarako oso baliagarriak ere zaizkigunak.

Beste gertuko “gizarte-sariak” batzuk ere baditugu, jakinda be-ren eragina baduela euskararen alde, zenbait txapelketa edo sarike-tak irekiak direlako: 1) batzuk zuzenean euskaren gaiari buruzkoak,

2) besteak zeharka, euskaraz egin behar direlako: bertsolaritzan, bi-deotan... Baina, galdera da: ekimen baikor hauek noraino bihurtzen dira notizia gure komunikabideetan?, zergatik gelditzen dira ia ikusezinak gure gizartean? Hala ere, badirudi nahiko argi dugun zerbait badela gizartean duen garrantzia eta eragina euskararen aldeko “social sanction and reward” lortzea, besteak beste “euskara eta bere kultura gizarteko ordainsarien markoan ongi txertatzea. Behar-beharrezkoa duela hori euskaldungoak, belaunez belaun bizirik iraungo badu” (Fishmanen hitzetan, 76 or). Galderak lirateke: nahiko egin al dugu esparru honetan?, nahiko aprobetxatzen al dugu egiten duguna, adibidez komunikazioetan (informatuz + baloratu)?

#### **4. EZTABAIDAGAIEN PROPOSAMENAK**

##### **I**

Aztertzen ari garen Txostena egiteko ezagutza trinkoa eta aberatsa behar da, eta horrela adierazten da txostenean: bai teorikoki, eta baita empirikoki ere. Horren ondorioa da Iñakik proposatzen digun komunikaziorako eredu berritua: 1) bai teorikoki, “*Komunikabideen eragin kognitiboaren eskema*” deitzen duena (12 or.) erabiliz, 2) baita praktikoki ere, euskararen munduarekiko, 10. irudian (41 or.) adierazten digun “*oraingo egoera eta eragin beharreko egoera berria zein FRAMING BERRIrako osagaiak*” azalduz. Horretarako egin behar izan duen sintesia oso estimagarria zaigu; baina agian sintesia eman nahi izan duelako (beti ere nire ustez), zenbait gauza inplizitu gelditu direla esango nuke. Horrela, Txostena irakurtzerakoan zenbait momentutan hausnarketak egitera bultzatu nau (nire kasuan behintzat), batzuk eztabaidagai izateko aproposak izan daitezkeenak (nire ustez, beti ere), horretarako Txostenak ematen digun aukera aprobetxatu nahian. Hauetako batzuk ekarriko ditut orain atal honetara:

##### **4.1 Komunikazio Teoriak eta Diskurtsoak**

Komunikazio teoriara hurbiltzerakoan, ikusten da teoria baino gehiago teoriak daudela, besteak beste diziplina askotako aztergaiak delako “komunikazioa”, bakoitzak azpimarratze bereziak eginez, eta askotan nahiko diziplinartekotasuna erabiltzen ez delako oraindik. Txostenean erabiltzen diren ikuspegiak, gehienez Soziologia eta Psikologia diziplinarenak dira; hauei Gizarte-Psikologia diziplinako ikuspegia eranstea komeniko litzateke, besteak beste aurreko bien arteko lotura egiten saiatzen delako. Txostenean ere, komunikazio teoriak eta diskurtsoak (hobeto pluralaz) lotuta datoz (beste ezaugarri egoki bat Txostenean), eta

horrela jarraituko dut nik ere hemen. Hain zuzen ere, aipatutako hiruen artekotasuna egitea litzateke komenigarria, hau orain proposatuz, adibidez, eta laburbilduz, honako ibilbidea eginez:

1. SOZIOLOGIA ← --- → PSIKOLOGIA ← --- → GIZARTE PSIKOLOGIA
2. SOZIOLOGIA ← --- → GIZARTE PSIKOLOGIA ← --- → PSIKOLOGIA

#### *4.1.1 Psikologia eta Gizarte-Psikologia aldetik*

Psikologia eta Gizarte-Psikologiatik ikusita, pertsona (eta taldeak, herriak, estatuak... ere) zenbait prozesu ezberdin erabiliz joaten da garatzen, prozesu guztiak erabilgarri dituenak zenbait helburutara iristeko eta zenbait gauza egiteko edo portaeratarira irizteko. Laburbilduz, dituen ahalmen guztiak pertsonak garatzen ditu harremanen bitartez, bera subjektu moduan funtzionatuz eta harremaneko beste guztiak objektu bezala, mota askotako objektuak izanez, adibidez: pertsonak, taldeak, sareak..., komunikabideak, hezkuntza, lan mundua, kirolak..., hizkuntzak, abestiak, janaria... Objektu hori guztiekin harremanetan, subjektuak bi norabide nagusiko harreman zirkularrak izaten ditu: 1) batzuetan gehiago subjektutik hasi eta objektura bideratzen dena, gero berriro subjektura etorri, 2) beste batzuetan alderantziz, gehiago objektutik hasita eta subjektuarengana datorrena, 3) gehienetan bi norabideko ibilbideak erabiltzen direlarik, halako artekotasun moduko joan-etorri zirkularra erabiliz, modu akumulatiboan funtzionatuz espirala moduan hobeto esan, azkenean: (1) subjektutik edo objektutik hasi, bi noranzko ibilbidea eginez, (2) subjektuak bukatzen du ibilbide osoa, berak zerbaitetara iristeko (iritziak eraikitzen, adibidez), zuzenean portaerak izan ala ez:

1. SUBEKTUAK → OBJEKTURA → SUBJEKTURA → OBJEKTURA → SUBJEKTURA
2. OBJEKTUAK → SUBJEKTURA → OBJEKTURA → SUBJEKTURA

**1. ibilbidean** kokatzen dira zenbait prozesu: 1) kognizioa osatzen dutenak: ulertzeak, usteak, atribuzioak, iritziak, irudikapenak...; 2) motibazioarekin lotzen direnak: jarrerak, interesak, helburuak, aukerak, intentzioak...; 3) emozioaren interbentzioa, bestelako prozesuetan eragiteko, subjektuarentzat alderdi positiboak azpimarratuz eta negatiboak ukatuz: sentsazioak, sentimenduak, emozioak, balorazioak...; 4) azken emaitzak lortu arte, beti konplexuak izango direnak: (1) batzuetan, gehiago halako iritziak lortzea, halako motibazio mota indartzea..., (2) beste batzuetan gehiago portaerak gidatzeko

behar diren aukerak lortzea (kognitiboki, motibazionalki, emozio-  
nalki), batzuetan ondoren portaera egokia eta eraginkorra gerta  
ahal izateko;

**2. ibilbidean** kokatzen dira beste zenbait prozesu: 1) kognizioa osa-  
tzeko erabiltzen direnak: hautemateak, inpresio eraketak, estereoti-  
poak jaso, usteak-iritziak jaso...; 2) motibazioarekin lotuz, lehen  
ibilbideko antzeko prozesuen erabileraren ondorioen emaitzak no-  
lakoak diren jaso, neurtzeko eta ebaluatzeko; 3) emozioarekin ere  
antzean, filtro moduan funtzionatuz, subjektuentzat zer jaso eta  
zer ukatu laguntzeko.

**3. Ibilbideen-artekotasuna** da interesgarria ulertzea: 1) ez bakarrik  
bi ibilbideen artekotasuna ezinbestez ematen delako, 2) prozesu  
guztien artekotasuna ere dagoelako, 3) subjektuan bertan beti pro-  
zesuen eta ibilbideen lotura egiten delako, pertsonetan bereziki, eta  
neurri batean taldeetan ere adibidez. Lotura horrek egiten duena da  
pertsonaren identitatea eraikitzea: (1) lotura horren ondorioa dena  
(pertsona-hartzaile moduan), (2) prozesu psikologiko eta psikoso-  
zialak maneiatzeko gida izango dena (pertsona-emaile moduan).  
Horregatik, identitatea prozesu berezia gertatzen da psikologian, gi-  
zarte-psikologian ere noski, eta horrela pertsonak definitzeko ere  
baliagarria izango dena.

Ibilbideen arteko lotura pertsona bakoitzak egiten du, bere identi-  
tatearen arabera bereziki. Egite horretan, parte hartzen dute zenbait  
printzipio orokor, edo “lege psikologikoak” deitzen direnak. Hauetako  
batzuk aipatzen dira txostenean, zeharka bada ere, adibidez: ekono-  
mia-legea psikologian deitzen dena, besteak beste komunikazio mun-  
duan informazioak nola jasotzen diren jakiteko eta nolako joerak sortzen  
diren ulertzeko: 1) ez dela jasotzen ematen den informazio guztia, baizik  
jasotze partziala egiten dela, motzagoa delako; 2) jasotzen den infor-  
mazioa ia automatikoki aukeratzen dela, aurretik dagoenarekin ados-  
tasunezkoa dena, “disonantzia kognitiboa” ez sortzeko, edo sortzen  
bada azkar gainditzeko, errazagoa delako; 3) jasotze horretan aukeratzen  
direnak, bakoitzaren helburuekin ondo datozenak izango dira; 4) jasotze  
horretan prozesu psikologiko guztiak parte hartzen dute, galbahe mo-  
duan funtzionatuz, pasatzen usteko bakarrik ondo datozenak, edo ko-  
herente direnak, aurrekoekin erkatuz, barne koherentzia mantentzeko,  
5) jasotze horretan ohiturak sortzen direla, aldatzeko erresistentzia jar-  
tzen dutenak, ziurtasun handiagoarekin eta arrisku txikiagoarekin lotzen  
direlako aurrekoekin, komunikazioen eragina mugatuz; eta abar luzea.

---

***Ekonomia-legea  
psikologian  
deitzen dena,  
besteak beste  
komunikazio  
munduan  
informazioak  
nola jasotzen  
diren jakiteko eta  
nolako joerak  
sortzen diren  
ulertzeko: 1) ez  
dela jasotzen  
ematen den  
informazio  
guztia, baizik  
jasotze partziala  
egiten dela,  
motzagoa delako.***

**Zenbait galdera  
proposatu  
daitezke gure  
arteko  
eztabaidarako.**

**Diziplinartekotas  
una gehiago  
erabiliz, nola  
hobeto azalduko  
genituzke gurean  
gertatzen  
direnak?, nola  
aprobetxatu  
diskurtso berriak  
eraikitzerakoan?,  
(ikus-  
entzunezkoak...)  
eragina aztertu  
beharko  
genuke?...**

Baina azken finean hori guztia pertsonetan ematen bada ere, nola hori konkretuki ematen den pertsona bakoitzean ulertzeko, jakin behar dugu gizartearen eraginaren arabera ematen dela gehienbat, harremanen sozializazioaren bitartez; horren ondorioak dira ere txostenean aipatzen diren ideia batzuk, adibidez: sare-sozialaren garrantzia, pertsonak direnak eta egiten dutenak ere ulertzeko. Horregatik, psikologiak gain, gizarte-psikologia ikuspegia ere ezinbestekoa zaigu, adibidez: (1) nolako komunikabide-iturri erabiltzen dituen pertsona bakoitzak, eta gizartalde bakoitzak ere, ulertzeko, (2) baita iturri aukera horiek nola funtzionatzen duten jakiteko ere.

Ibilbideen arteko lotura pertsona bakoitzak egiten du, bere identitate arabera; horregatik: 1) nahiz eta identitatea eraikitzen joaten den eten gabe pertsona bakoitzean, 2) halako barne-koherentzia gordetzeko joeragatik (gorago esan bezala), bakoitzaren identitatea nahiko mantentzeko joera du, baita ere neurri handian gaurko mundu mugikorrean (post-modernismoa eta neo-modernismoa, globalizazioa, neoliberalismoa...). Txostenean askotan aipatzen dena da identitatea, eta honako ideia hau ere: pertsonak egiten dituen prozesu guztien lotura, eta prozesu eta portaeren artean gertatzen diren loturak eta emaitzak, pertsonak identitatearen bitartez bideratzen ditu. Horregatik, identitatea pertsona definitzeko baliagarria da, horren arabera azaldu daitezkeelako, orokorrean: (1) bai beste guztiak (objektuak) nolako eragina lortu dezaketen pertsonetan, subjektu-hartzaile moduan kontsideratuz, (2) baita pertsonak nolako eragina besteetan (objektuetan) izan dezaketen, subjektu-emaille moduan kontsideratuz.

Analisi eta aplikazio maila ezberdin arabera, gizarte-psikologiak esaten duen bezala (soziologiak eta psikologiak esaten dutena barnerratu), identitatean mailak bereiztu daitezke, bere funtzionamenduen arabera: pertsonala, soziala... Euskararekiko, identitate soziala izan daiteke interesgarriagoa, honetan gizartean eraikitzen diren "kategoria" (gizarte bateko estrukturak adierazten dituztenak: ukipen egoerak, alderdi politikoak, generoa, lana bai/ez, hezkuntza mailak, komunikazio motak...; baita ere: hizkuntzak, kulturak...) eragina zuzenagoa izaten dutelako. Hau da, gizartean ematen diren harremanen eragina: 1) pertsonena gizartean, 2) gizartearena pertsonetan, identitate sozialean kokatzen dira. Horrela, Gizarte-Psikologia ikuspegia ere erabiltzea beharrezkoa zaigu.

Guzti hauek kontutan hartuta, zenbait galdera proposatu daitezke gure arteko eztabaidarako, adibidez:

**1. Diziplinartekotasuna gehiago erabiliz, nola hobeto azalduko genituzke gurean gertatzen direnak?, nola aprobetxatu diskurtso be-**

riak eraikitzerakoan?, komunikazio mota ezberdinen (prentsa eta bestelakoak: aldizkariak, telebista, elektronikoa...; irakurriz, ikusiz, ikus-entzunezkoak...) eragina aztertu beharko genuke?...

**2. Nola egin identitatearekin?**, nola ulertu pertsonen identitatean (pertsonala, soziala...) egunean ematen diren bi joera ezberdinen (kontraesanezkoak ere?) artekotasuna, eta ondorengo emaitzak?: 1) alde batetik, bakoitzaren identitatean halako mantentze joeraren ondoan, psikologikoki, 2) bestetik, eguneko munduan ematen diren globalizazioa, neoliberalismoa... giroan, bakoitzaren identitatean bestelako joera aldakorra indartzen ari da, psikosozialki. Honi buruz Txostenean esaten dena errepikatuz: “Euskara identitatea oinarritzeko baino gehiago identitatea osatzeko erabiliko da. Hizkuntza kare-mortero bilakatuko da. Identitateak gero eta konplexuagoak, malguagoak, likidoagoak, zatituagoak izango direnez, espazioak hurbiltzeko, genealogiak lotzeko eta aniztasuna kudeatzeko, kare-argamasa beharko dugu. Hortik aurrera, nire ustez airean geratuko zaigun galdera hau da: zein osagairekin gorpuztu kare-mortero hori” (Hernándezen hitzetan, 74 or.). 3) Horrela ba, ondorengo beste galdera da: nola lortu identitatea (pertsonetan, taldetan, gizartean... ) orokorrean, eta bereziki euskal-identitatea eta euskara-identitatea, euskara aldekotasanarekiko: zatitzailea izatetik indar gunea izatera pasatzea?, zergatik identitatea ukatzen dutenak, batez ere euskal kultura eta hizkuntzarekiko gurean ematen denarekiko aritzen dira, baina ez espainiar kultura eta hizkuntzarekiko ordea?, boteretsuagoen eta dominatzaileen eraginaren adibidea da?... Horrela, gauza bat da jakitea identitatea badagoela beti, funtzionatzen duela pertsonetan denetarako, eta bestea noraino komeni den edo ez erabiliteza ez bada izango euskara-aldekotasuna bultzatzeko, ikusita egunean batzuen diskurtsoak nolakoak diren. Guzti honi buruz ere eztabaidatzea komeni da, eta horretarako proposamena luzatzen dut hemen.

**3. Kare-morteroa behar dugu:** horrela da. Gutxienez: 1) egunean, identitateak gero eta konplexuagoak, malguagoak, likidoagoak, zatituagoak... badira, gorago aipatutako prozesu psikosozialak ere (kognitiboak, motibazionalak, emozionalak) horrela funtzionatzen dutelako da, eta prozesu eta portaeren artekoak ere horrelakoak direlako; 2) honek esan nahi du, egunean kontraesanezko egoeran gertatzen garela: (1) alde batetik, psikologikoki, barne-koherentzia gordetzea, ohiturak mantentzea..., joeraren beharra dugu, (2) bestalde ordea, psikosozialki, alderantziz, joera zatituagora, likidoa-

---

**Nola egin  
identitatearekin?,  
nola ulertu  
pertsonen  
identitatean  
(pertsonala,  
soziala...)  
egunean ematen  
diren bi joera  
ezberdinen  
(kontraesanezkoak  
ere?)  
artekotasuna, eta  
ondorengo  
emaitzak?:  
1) alde batetik,  
bakoitzaren  
identitatean  
halako mantentze  
joeraren ondoan,  
psikologikoki,  
2) bestetik,  
eguneko  
munduan ematen  
diren  
globalizazioa,  
neoliberalismo...  
giroan.**

gora..., bultzatuta gaude (post-modernismoan adierazten zaigun bezala); 3) horregatik, kare-morteroa edo antzekoa beharrezkoa zaigu: (1) psikologikoki beharrezkoa zaiguna, (2) eta soziologikoki egokitzera behartzen zaiguna, (3) kontraesanak sortzen dituen neurrian, psikosozialki nola bideratu, halako kare-mortero batetara iristeko, beti ere pertsonak gizartean modu efizientean funtziona ahal izateko, baita euskararen alde ere. Berriro ere, diziplinartekotasunaren beharra, eta horretan ikuspegi psikosozialaren azpimarratzea.

#### *4.1.2 Soziologia eta Gizarte-Psikologia aldetik.*

Bi zientzia hauen arteko beharra ere badago, Txostenean aipatzen diren zenbait gauza ahalik eta ondoen ulertzeko. Adibidez, boterea zer den eta nola funtzionatzen duen jakiteko.

1. Boterea zer den ikusteko, bi alderdi dituela esan behar da, gutxienez, elkarren artean lotuta datozenak, gizartean: 1) alde batetik, ezberdintasun sozialak (politikoak, laboralak...; estatuekiko, herriekiko, taldeekiko...; kulturalak, hizkuntzekiko...; ...) daudelako, eta beren artekotasuna modu hierarkikoan eta ez orekatuan funtzionatzen dutelako, funtzionamendu horri boterea deitzen zaio, ondorio moduan interpretatuz, 2) bestetik, boterea dagolako, bere zeregina da hierarki hori mantentzea, edo handitzea, beti ere hierarkian ondoen kokatzen den ahalmena denez, horren alde egiten du, kausa moduan funtzionatuz. Horrela ba, gorago ikusi bezala, bi alderdi hauen artekotasuna da funtsezkoa, ondo ulertu beharrezkoa izango direlako, interdependentzia hori ulertzeko. Boterearen arabera, gizartean sortzen dira bi talde nagusi, sinplifikatuz: dominatzailea/menpekkoa deitu ohi direnak (gure hizkuntza-ukipen egoera (eta ez bakarrik hizkuntzakoa) aztertzerakoan erabilia duguna), beraien artekotasuna ondo adieraziz. Bestalde, boterea handinahia da, behin eremu batean edo/eta gizarte talde batean lortu dominatzailea izatea, nahi du beste eremutan eta taldetan ere boteretsuena izan. Antzean, talde dominatzaileak botere erlatibo (konparatibo) handiena lortzea du helburu, dudarik gabeko irabazle gertatzeko, harreman hierarkikoetan, ahal duen neurrian. Bestetik, menpekkoa dena, aldearantziz, nahiz eta lan asko egin bere egoera hierarkikoan hobetzen joateko (gutxienean), lortuko duena gehiago dagokio askotan dominatzaileak utziko dionari, beren lanak handiak edo txikiak, egoiak edo desegokiak... izanari baino.

Hau gurera ekarriz, badirudi adostasuna dagoela ukipen egoeran

gaudela: alde batetik Euskal mundua eta Euskara, menpeko lekua betetzen duena, eta bestetik Espainiar mundua eta Espainiera (Frantzia eta Frantsesa ere), dominatzaile lekua betetzen duena. Horregatik ikusten dira halako portaera ezberdinak, dominatzaileak direnak beren helburuak mantendu nahian, adibidez diskurtsoak gizarteratzerakoan: oso diskurtso ezberdinak direnak beren talderako eraikitzen dituztenak, eta menpeko talderako zabaltzen dituztenak, askotan antagonikoak ere direnak; adibidez, Euskara eta Espainiera hizkuntzeekiko: txikia / handia izatea, hautazkoa / derrigorrezkoa izan beharra, behartsua / nahikoa dena, zatitzailea / bildutzailea gertatzea, aniztasun handiaren beharrean / aniztasun mugatuaren nahikotasuna...; Txostenean ere: bereizketa / diferentzia (48 or.), eta abar luzea. Gure gazteetan ematen dena: "... euskaradun gazteak "bakarrik" eta kontraesanean "galduak" sentitzen dira", edo "... gehiengoak gutxiengoa irensten du berdintasuna aldarrikatuz" (48 or.). Hau bera, zuzenean edo zeharka, askotan gurean komunikabideetan ere ikusten den zerbait da.

2. Horrez gain, botereak dituen funtzionatzeko erak anitzak dira, beti ere menpeko egoera bakoitzera ondo egokitu nahi direnak, dominatzaile egoerako taldeko (komunitateko...) helburu nagusiak lortzeko. Adibide onak aurkitzen ditugu Txostenean, hau adierazteko, hizkuntzekiko, gurenean ere aplikatu aurretik beste egoera batzuetan aplikatu ondoren (46 or.): 1) hizkuntza "nazionalista" eta "nazionista" bereizteko beharra sortu da dominatzaile egoerakoak menpeko hizkuntzak nola tratatu errazteko, zeren horrelako bereizketa ez da beharrezkoa eta ez da erabiltzen dominatzaile egoeran dauden hizkuntzekiko; 2) baita deitura ezberdinak erabili ere bakoitzarentzako: hizkuntza erregionala / nazionala (Europar ere), beste hizkuntza / hizkuntza besterik gabe...; 3) edo menpeko hizkuntzak duen ezaugarri bat dominatzaile egoerakoak beren hizkuntza dominatzaileari aplikatuz, arrakastatsua dela ikusiz: berezko hizkuntza adibidez, Euskal Herrian, edo euskal-komunitatean (komunitatea delako gehien erabiltzen den maila, Txostenean), bakarrik euskararako baliagarria dena, soziolinguistikaren arabera, euskararako eta baita espainierarako ere erabiliz. Eta abar luzea. Hau da, diskurtso nagusiak dominatzaile diren eskutan daude. Sentsu honetan interpreta daiteke, Txosteneko prentsaren azterketa enpirikoan ikusten direnak (3. atalean, 27 or.), adibidez: zergatik informazioen artean aukera ezberdinak ematen diren: bai / ez erabiltzea (ikusezintasuna eginez), alderdi positiboak / negatiboak azpimarratzea, eta abar.



3. Botereak baditu bestelako pribilegioak ere, adibidez: bortizkeria sinbolikoa deiturikoa egiteko aukera, P. Bourdieu eta beste aditu batzuk landu dutena (47 or.), dominazioa egiteko modu sibilinoa dena, isilekoa gertatzen dena, “bortxakeri eta indarkeri leuna” ere deitzen dena, helburua delako menpeko egoerakoek berea egitea dominatzaile egoerakoek nahi dutena. Fenomeno antzekoa da Gizarte-Psikologian “babesgabetsun edo etsipen ikasia” (indefensión aprendida) deitzen dena, honekin lortzen dira: 1) ez bakarrik menpeko egoerakoek bereak egitea dominatzaileek menpekoentzako sortzen dituzten diskurtsoak, 2) baizik baita ere menpekoek horrekin ez konturatzea, edo areago diskurtso horrekin pozik egotea. Txostenean ikusten diren zenbait espresio adibide moduan hartu daitezkeenak, zori txarrez gure gazteetan aurkitzen direnak (48 or.): “borondate oneko asimilazioa”...

4. Nahiko nuke zerbait erantsi hierarkiako dikotomia honetan (laburtuz, dikotomiaren bi muturren artean aniztasuna dagoelako). Txostenean ere aipatzen den Bizindar Etnolinguistiko Erlatibo Teoria (objektiboa, gehiago soziologia ikuspegitik, eta subjektiboa, gehiago gizarte-psikologia ikuspegitik). Laburbilduz, honako hiru faktore osatzen dute hizkuntza bakoitzaren deituriko “bizindar etnolinguistikoa”, batez ere ukipen egoerako hizkuntzekiko sortu eta baliagarria dena, eredu erlatiboa edo konparatiboa delako: 1) sozio-demografikoa dena, honen arabera ukipenezko hizkuntzak dira erlatiboki “gehiengo/ gutxiengo”, 2) boterearena dena, babesa eta kontrola instituzionala erlatiboaren arabera: “dominatzaile/ menpeko” hizkuntzak, 3) estatusa eta prestigioa erlatiboa arabera, hizkuntzak izango dira: “estatusa altukoa/ baxukoa”, edo “handikoa/ txikikoa”. Garrantzitsua da bereizketa hau ondo erabiltzea, faktore bakoitzak funtzionatzen duelako modu ezberdinean, eta beren eragina ere ezberdina delako. Gurenean, euskarak betetzen duen lekua, teorian, da: hizkuntza erlatiboki gutxiengoa (eta gutxitua ere, gurenean aspaldi denik ondo ulertu eta erabiltzen dugun bezala) + menpekoa + estatusa baxukoa (nahiz eta faktore honetan hobexego gaudela dirudin). Hau da, hiru faktoreetan menpeko lekua betetzen dugularik, gure egoera hierarkikoa eta asimetrikoa oso handia dela, oso txarra dela, esan daiteke. Horrela errazago ulertu dezakegu ere diskurtsotan (Txosteneko aztergai nagusia dena), eta ekintzetan ere, euskararekin gertatzen zaiguna. Alderdi objektiboak (soziologiko-agoak) eta subjektiboak (psikosozialagoak) ere komeni da bereiztea, besteak beste ikusteko elkarrekin modu adostuan edo ez ematen

diren: adostuan badoaz, errazago da “bortizkeria sinbolikoa” eta “babesgabetasun edo etsipen ikasia” fenomenoak funtzionatu ahal izatea; nahiz eta hau ez dugun nahiko aztertu, nire ustez ez dira ematen gurean adostasun handiarekin, posible egiteko euskararen aldeotasun aktiboa edukitzea neurri batean, besteak beste euskal-identitatea eta euskara-identitatea neurri nahiko handian lortu ahal izan dugulako (enpirikoki ondo dakigun bezala), zori onez.

Guzti honen inguruan zer esan?; noraino nahi ditugun aldaketak posibleak ditugu, orokorrean, egoera ez bada nahiko aldatzen?; aipatzen diren eguneko nazioarteko gizartean ematen hasiak diren egoera berriak, globalizazioa edo neoliberalismoa adibidez, noraino posible da erabili eta aplikatu izatea, gurea bezalako gizarte partikularra batean?; noraino nahiak eta posibleak direnak bereizten ditugu?; ...? Edo noraino aztertu zenbait fenomeno, egoera ulertzeko, nahiz eta agian komeni den diskurtsoetan ez erabili, identitatearekin gertatzen den bezala? Uste dut pena merezi duela holako edo antzeko galderen inguruan gehiago ez-tabaidatzea; hau hemen proposatzen dut.

#### **4.2 Framing Berria ereduaren proposamenak**

Egia esan, hau izan zait agian Txosteneko atal interesgarriena, eguneko egoeran, adierazten duelako zer eta nola egin beharko genukeen euskararen alde ekiteko eta lortzeko: 1) aldeko diskurtso berriak eraikiz eta sozializatuz, 2) gure gizarte osoak, edo gehiengoak, aldeko ibilbidea hartu edo jarraitu dezan. Hau lortzeko, behin baino gehiagotan, bi bide hauek proposatzen dira: (1) *Framing Aldarrikatzailea eta Uzkurra* bi ereduak gainditu behar dira, hauen artekotasuna ere lortu beharrekoa da, adostasun batera iristeko: (2) bai bakoitzaren alderdi batzuk mantenduz eta beste batzuk baztertuz lortzearekin batera, beste ezaugarri berri batzuk ere onartzeko bidean jarriz, (3) azkenean, euskal-komunitate gizarteko gehiengoaren arteko adostasunarekin *Framing Berria* eraikitzeke eta erabiltzeko, honako fluxuak erabiliz: komunikabideen agendatik hasi, eta agenda setting + priming + framing + ... ibilbideak osatuz, esan bezala euskararen aldekotasunaren joera handiena eta aberatsena lortzeko helburuarekin.

Iruditzen zaidana da proposatzen diren aldaketak aurreko Framing eredutan, indartsuagoak direla *Framing Aldarrikatzailea* ereduarekiko bestean baino, *Framing Berrian* gizartearen aldekotasunak “diskurtso onargarria eta lasaigarria” (67 or.) izan dezan, nahiz eta jakin orain arteko euskararekiko aldekotasun handia behar izan dela iritsi garen egoeraraino iristeko. Galdera litzateke: nola orekatu egin behar dena, orain

**Iruditzen zaidana da proposatzen diren aldaketak aurreko Framing eredutan, indartsuagoak direla Framing Aldarrikatzailea ereduarekiko bestean baino, Framing Berrian gizartearen aldekotasunak “diskurtso onargarria eta lasaigarria” (65 or.) izan dezan, nahiz eta jakin orain arteko euskararekiko aldekotasun handia behar izan dela iritsi garen egoeraraino iristeko. Galdera litzateke: nola orekatu egin behar dena, orain arteko aldekotasuna indartuz, eta aldi berean oraingo ez-aldekotasuna aldatu euskararen alde ere egin ahal izateko?**

arteko euskararekiko aldekotasun handia behar izan dela iritsi garen egoeraraino iristeko. Galdera litzateke: nola orekatu egin behar dena, orain arteko aldekotasuna indartzuz, eta aldi berean oraingo ez-aldekotasuna aldatu euskararen alde ere egin ahal izateko? Horretarako, “lan pedagogiko handia behar da, eta eginkizun horretan komunikazioak zeresan handia du” (66 or.), diskurtso berria zabaltzerakoan.

*Framing Berria* eraikitzeke, ezaugarri berriak txertatuz, Txostenean proposatzen dira honako hiru bide erabiltzea, beraien arteko osagarritasuna eginez eredu oso bat lortzeko, “aldeko giroa birsortzeko eta hedatzeko” (66-75 or.) helburuekin.: 1) berdintasunaren diskurtsoa, 2) hizkuntzen iraunkortasuna (hobeto, jasangarritasuna bultzatzea), 3) Hizkuntzen ekologia izenekoak. Hauei buruz nahiko nuke zerbait esan orain. Hirurak interesgarriak, baina nire ustez nahiko zalantzak sortzen dituztenak (niri behintzat); hirugarrenari buruz Txostenean esaten dena: “indargune garbiak ditu, baino ahulguneak ere bai” (Erize-ren hitzetan, 62 or.), uste dut aplikagarri dela beste biei ere, bereziki komunikazioan diskurtsoak erabiltzerakoan. Orokorrean iruditzen zait nahasten ditugula nahi ditugunak eta lortzeko posibleak direnak, hiru bide hauek erabiliz, oraingoz behintzat, gurenean. Baina orain bakarrik hirugarren bidea hartuko dut kontutan.

#### *4.2.1 Hizkuntzen ekologia, teorian*

Alde batetik, “ekologia da oraingo soziolinguistikan hizkuntzen arteko harremanez erabiltzen ari den kontzeptu nagusienetako bat” (62 or.), 1970- hamarkadan hasita eta gaur egun ere, gehienbat ukipenezko egoeratan menpeko + gutxiengo + estatusa baxuko hizkuntzei aplikatuz; bestetik, zenbait autorek aipatzen dituzten bere erabileraren abantaila ondoan, zenbait problema ere sortzen direlako.

Hizkuntzen ekologia teoria eraikitzen da: natura eta biologiaren ekologia teoriatik ezaugarri nagusiak hartuz (beste adibide bat zientzian artekotasunaren abantailak ulertzeko), metafora moduan erabiliz. Jasotze horretan, bide anitzak erabiltzen dira, agian bere aztergaia ere aniztasunaren inguruan aritzen delako. Txostenean aipatzen den bide aberatsa bat da honako bereizketan oinarritzen dena: “a) ukipen egoeran dauden hizkuntzen arteko harremanen ekologikoa; b) hizkuntza bakoitzak bere ingurune sozialarekin duen harreman ekologikoa” (63 or.), ukipen egoeran ematen diren harreman nagusien ondorioa izango delako, neurri handi batean, hizkuntza bakoitzaren inguruan eraikiko den harreman mota, nahiko ulergarria zaiguna gorago esan ditugunak hizkuntza-ukipenari buruz kontutan hartzen baditugu. Hau horrela da, analisi eta

aplikazio maila ezberdinak aztertuz, beraien artean ematen diren harremanak nolakoak diren onartzen baditugu: 1) nahiz eta mailen artean artekotasuna dagoen, horrengatik azterketak hasi daitezke edozein mailan beti ere hortik hasita beste maila guztietan ere sartzen bada, edozein fenomeno soziala aztertzerakoan, adibidez hizkuntzaukipen fenomenoa, 2) eragina handiena ematen da, orokorrean, maila nagusitik hasi (adibidez, estatu maila) eta beste maila partikularragoak diren noranzkoa jarraituz (Euskal Herria, Erkidegoak eta Iparraldea, probintziak (?), udalak, taldeak..., pertsonetaraino iritsi arte), alderantziz baino, Gizarte-Psikologiak erabiltzen duen arabera. Gorago esan bezala, gure ukipen egoeran dominatzaileak (+ gehiengoak + estatusa altuagokoak) direnak, espainiar kultura eta hizkuntzak (egokiagoa al da horrela adieraztea, zuzenean Espainia eta espainiera adieraztea baino?) dira aukeratzeko eta ekiteko ahalmen nagusia edo handiena dutenak, euskal kultura eta hizkuntzak dutena baino. Hala ere, euskararen alde eginez, pena merezi du saio berriak egitea, harreman-eredua berritzea, teoria berriak erabiliz diskurtso berriak sortzea, eta abar, Txostenean proposatzen zaigun bezala. Alderdi positiboak eta negatiboak daudenez:

1. Honako ideia positibo nagusiak proposatu daitezke, Teoria hau erabiliz, eta proposatzen dira ere Txostenean, euskararen aldeko diskurtso berriak erabilgarriak izateko:

— Aniztasuna ona da, baliotsua delako eta ondarea moduan hartu daitekeelako, baita kultura eta hizkuntza ezberdinekiko ere; balore honek: 1) kultura eta hizkuntza bakoitza mantentzea suposatzen du, eta hau lortuz, 2) baita eleaniztasunaren alde jokatzeko ere;

— Aniztasunaren berdintasuna etikoki onartzen da, kultura eta hizkuntza bakoitzaren alde ekin ahal izateko; batera gisa eskubideak ere onartzen dira, berdintasuna aplikatzeko beharrezkoa dena;

— Hizkuntzen arteko ekosistema orekatu bat eraikitzea posiblea eta beharrezkoa da, aniztasunaren artekotasuna orekatu bat eraikiz, elkartasuna bideratzeko beharrezkoa dena;

— Horretarako, orain arte menpeko kulturak eta hizkuntzak direnak berrindartu beharrean daude, ekosisteman bere lekua izan dezaten; horretarako, aukera eman behar zaie, bakoitzak bere autonomia erabiliz, berekiko plangintza modu autonomoan eraikitzeko;

— Kultura eta hizkuntza bakoitzean funtzio eskusibo eraginkor batzuk gordetzea (batzuetan diglosia bezala ulertu ohi dena, ukipen egoeratan, nahiz eta ez beti horrela izanez); baita transmisioa ziur-

---

**Aniztasuna ona da, baliotsua delako eta ondarea moduan hartu daitekeelako, baita kultura eta hizkuntza ezberdinekiko ere; balore honek: 1) kultura eta hizkuntza bakoitza mantentzea suposatzen du, eta hau lortuz, 2) baita eleaniztasunaren alde jokatzeko ere.**

**Orain arte  
menpeko  
kulturak eta  
hizkuntzak  
direnak  
berrindartu  
beharrean daude,  
ekosisteman bere  
lekua izan  
dezaten;  
horretarako,  
aukera eman  
behar zaie,  
bakoitzak bere  
autonomia  
erabiliz, berekiko  
plangintza modu  
autonomoan  
eraikitzeko.**

**Guztion artean,  
ekosistema  
orekatu batean  
kokatuz, kultura  
eta hizkuntza  
bakoitzaren  
bizindar-  
etnolinguistiko  
nahikoa lortu eta  
mantendu behar  
da, hierarkizazioa  
ahalik eta txikien  
izateko, eta  
arteko  
harremanak  
ahalik eta  
orekatuenak  
izateko.**

tatzeko egokiak izango direnak; horregatik, subsidiaritate printzinoa erabili beharrekoa da;

— Guzti horretarako, zeregina handia da kultura eta hizkuntza bakoitzarekiko gizartearentzako, bereziki erresponsabilitate handia hartu behar duten gizarte horretako buruak kontsideratzen direnak (gobernuak, liderrak, unibertsitateak, enpresak, erakundeak, mugimendu sozialak...); horren ondoan, baita kultura eta hizkuntza boteretsuen gizarteko buruak ere zeregin handia dute, esandako guztia aurrera egiteko bere eskuetan bereziki dagoelako;

— Guztion artean, ekosistema orekatu batean kokatuz, kultura eta hizkuntza bakoitzaren bizindar-etnolinguistiko nahikoa lortu eta mantendu behar da, hierarkizazioa ahalik eta txikien izateko, eta arteko harremanak ahalik eta orekatuenak izateko;

— Ideia guzti hauek osatuko dute *Priming* berria, diskurtso berriak eraikitzerakoan, eta komunikazioaren bitartez zabaltzeko, beren sozializazioa lortu nahian.

2. Ideia negatiboak ere baditu ordea teoria honek, zuzenean naturan eta biologian gertatzen dena kultura eta hizkuntzetara aplikatzen bada:

— Darwinismoa inguruko batzuk askotan aipatuak izan dira; Txostenean ere esaten da: “<Hizkuntza handiek txikiak jaten dituztela eta, hortaz, indartsuek baino ez dutela denboran irauten> motako ideiak (*hizkuntzen darwinismo* eta planteamendu liberalenak) gainditzea eta hizkuntzen gaineko interbentzio planifikatua egitea aldarrikatzen da, hizkuntzen arteko harreman horiek zaindu eta arautu beharra azpimarratuz. Horretarako, aniztasunaren balioa oinarri hartuta, etika eta balio berriak bultzatu behar dira” (63 or.).

— Baina daude beste batzuk ere ekologia-praktikarekin lotzen direnak, gehienetan aipatzen ez direnak baina hor daudenak, eta eztabaidarako egokiak izan daitezkeenak (hurrengo atalean).

#### 4.2.1 Hizkuntzen ekologia, praktikan

Ekologian, orokorrean, eta ondoren hizkuntza-ekologian ere, ondo bereiztu beharrekoak dira: 1) teoriak zer esaten duen, gehienetan mezu positiboak direnak, 2) eta praktikak zer adierazten diguten, mezuekin erkatuz gehiegitan nahiko ezberdinak direnak, negatiboak izatera ere iristen direnak.

Praktikak nolakoak izan daitezkeen adierazteko, adibide erraza batzuk erabiliz, telebistan 2012ko irailean jasotako hauek aipatuko ditut orain:

1. Animalien artean, badaude batzuk “Asiako Erleak” deitzen direnak, eta espezie “inbaditzailea” moduan sailkatzen dena, hemengo (Europar) erleekin erkatuz erraldoiak direnak, eta bertako hauek produktutako ezta jateko Asiako-Erleak hiltzen dituztenak, beren probetxurako bakarrik bertakoak akabatuz, horrela gutxienez emaitza txar hauek sortuz: 1) bertako betiko (?) erle mota hau desagertzea, 2) desagertzea ere bere produkzioak direnak (ezta, argizaria...), gizarterako onak direnak, 3) desagertzea baita ere inguruko landareen polinizazio funtziorako beharrezkoak zirenak, landare horien produktioa ere desagertze bidean jarritz. Hori ikusita, gizartean hartu den erabakia izan da Asiako-Erle horiek hiltzea (Donostiako kaletako zuhaitzetan zeudenak, adibidez, telebistan irailean ikusia), beti ere erabakia ekologikoki egokiena delakoan.

2. Landare artean, antzeko zerbait gertatu da ere, Espainiako ibai batean, landare itxuraz ederra eta polita, baina ibaia berarentzako bakarrik hartzen nahi duena, bertan zeuden betiko landare eta animaliak hiltzorian jarritz, ikusi da landare hau ere kentzen, urtero kendu beharra dutela ere horrenbestera inoko erresistentzia duelako, espezie inbaditzailea bezala berriz ere sailkatuz, telebistan ikusi dugu (2012ko irailean ere). Berriz ere, aukera ekologiko bakarra bezala kontsideratuz.

3. Pertsonetan ere, telebistan eta komunikabideetan ikusi da pertsonen txertatzearen beharrekiko kanpaina ireki dela (2012ko irailean berriz ere), urtero errepikatuz, txertoak birusa batzuk hiltzearen bitartez lortzen dutelako pertsonak ez kutsatzea, pertsonen osasuna bermatzea, horretarako gizarteko gehiengoa gonbidatuz. Berriz ere neurri ekologiko egokia bezala.

Antzeko beste zenbait adibide ere ezagunak dira: 1) batzuetan gizarteak naturarekiko eginez, nahiz eta zenbait nazioarteko mailako bilera egin eta ustez adostasunak lortu (Cumbre de la Tierra de Río de Janeiro konferentzia, 1992ean, adibidez), baina gero praktikan aplikazio eskasiakoak gertatzen direnak; 2) beste batzuetan berriz gizarteak zuzenean gizartearen kontra eginez, modu ezberdinetan (lurrak kenduz, beren izaerak zapalduz (hizkuntzak barne), adibidez), baina nazioarte mailan ezagunak izanagatik ezer gutxi egiten delarik, batzuetan aurretik konponbide adosturen baten beharra arbuiatuz.

Horrela ba, nahiz eta diskurtso berritan ideia positiboak, erakargarriak, pozgarriak, eta abar azpimarratu beharko diren, horien bitartez euskararen aldeko egoera zabalduko dela pentsatuz, espero den bezala,

**Inork ez dezala  
pentsa Framing  
Berriak indar  
nahikorik izango  
duenik  
euskararen  
presentzia gizarte  
osora zabaltzeko  
eta suspertzeko,  
besterik gabe.**

nekeza ikusten dut, nahiz eta nik ere beharrezkoa dela onartu. Antzeko idiak jasotzen dira Txostenean ere: 1) alde batetik, aniztasunaren printzipioa aberatsaz gain, beharrezkoa ere bada: “aniztasunaren ukazioak kolore iluneko etorkizuna margotzen baitu: Hala da hori guztia, bai, errazagoa, sinpleagoa eta atseginagoa, alegia; baina pobreagoa eta gatazkatsua ere bada, ikuspegi etikotik guztiz arbuigarria gainera, ez baita bidezkoa ez eta eraginkorra ere bizikidetza harmoniatsu bat hezurramitzeko” (68 or.); 2) bestalde, esaten da ere “esandako edukiez osatuta, inork ez dezala pentsa *Framing Berriak* indar nahikorik izango duenik euskararen presentzia gizarte osora zabaltzeko eta suspertzeko, besterik gabe. Eragin mugatua izan dezake soilik oinarri filosofiko eta kontzeptualen gainean eraikitzen bada. Horregatik, oinarri hori ez ezik, egunerokotasunak dituen premiei ere erantzun *ukigarri* bat eman beharko lieke *Framing Berriak*. Buruan darabilgun osagai eraginkor bat *gizarte sariarena* litzateke...” (76 or.), eta ni ere ados nago honekin. Uste dut badaudela jadanik euskal eta euskara aldeko zenbait gizarte-erakunde eta talde sariak banatzen dituztenak, azken urtetan ireki diren zenbait sariketa arlo berritan ere. Baina sari konkretu bereziak beharrezkoen ondoan, sari zabala orokorra da bultzatu beharrezkoa batez ere: euskaraz bizitzeak ekarriko duen sari zabala, hain zuzen ere.

Nire ustez, diskurtsoaz gain, beste planteamendu batzuk berritzea ere beharrezkoa zaigula, euskara izango bada *Framing Berria* ereduan esaten den bezalakoa, agian gehiago, edo horrenbeste, praktikekin lotuz, diskurtsoekin lotuz gain. Adibidez, egun hauetan (irailean) telebistan ikusten ari gara zenbait politiko euskararen aldeko diskurtsoak ez dituzten erabiltzen, euskararen aldekoak ere ez direnak, batzuetan euskara erabiltzen dutela, gehienetan irakurriz bada ere, espero dutelako eraginkorragoa gertatuko zaiela horrela egitea, bere gertuko bezeroak ez direnentzako ere iritsi nahian: agian hauteskunde garaian gaudelako?. Nire ustez, esandako guztia kontutan hartuz, diskurtsoak eragin dezaketeko praktikekin lotzen badira, gehienbat; horregatik ere ezinbestekoa zaigu euskararen erabilera sendotu, halako artekotasuna dagoelako honetan ere:

1. DISKURTSOTIK → PRAKTIKARA → DISKURTSOTARA → PRAKTIKARA → ...
2. PRAKTIKATIK → DISKURTSOTARA → PRAKTIKARA → DISKURTSOTARA → ...
3. DISKURTSOAK ← - - - → PRAKTIKAK

#### 4.2.3 Kataluniaren adibidea

Kataluniaren adibidearen eragina gurean aspaldikoa da, baina nabaria da Txostenean. *Framing Berri*aren eraikuntzan Kataluniaren ereduak duen pisua handia da: 1) bai aurretik ibili direlako diskurtso berriak osatzen, eta aplikatzen ere, gehienbat hizkuntza-ekologia teoriaren arabera: neurri handi batean Kataluniako egoera ezberdina izanda, katalana hizkuntzaren egoera nahiko hobea delako euskararena baino, errazagoa zaielako; 2) baita diskurtso berriaren eraikuntzarekin eta erabilerarekin ari direlako azkeneko urte batzuetan, dirudienez emaitza onak lortuz, eta aurrekari moduan euskararako ere baliagarria izango delakoan erabiltzen dugulako.

Gizarte aldaketek dakarten gaurkotu beharra izeneko atalean (5.4, 69 or.), jasotzen dira Kataluniako azken ereduaren zenbait ideia, gurenean ere jasotzen direnak neurri batean *Framing Berria* eraikitzeko; horregatik arreta berezia horretan jartzea pena merezi du, diskurtso berrien beharrez gain, estrategia berriak ere erabiltzen dituztelako. Adibidez:

1. Diskurtso berrian, proposatzen dira zenbait aldaketa, denak gure artean eztabaidagai izatera proposatuko nukeena hemen: 1) berreskuratzetik → irabaztera pasatzera, 2) hizkuntzaz aldatzetik → norberak aukeratutako eta gidatutako eleaniztasunera, 3) integraziotik → adopziora (gutxienez zalantzan jarriko nukeena, gure kasuan behintzat), 4) biziraupenetik → ongizatera, 5) sakrifiziotik → saritutako ahaleginera, 6) Kataluniako berriazko hizkuntzatik → katalan guztien hizkuntzara. Egia esan, aldaketa hauek denak zalantzan jarriko nituzke, besterik gabe euskara mundura aplikatu nahi badira. “Estamos desarrollando un discurso plenamente liberal” (Fernandez-en hitzetan, 75 or.) esaten denean katalana hizkuntzarekiko, kezka asko eta handiak sortzen zaizkit, aldaketa batzuekin gehiago beste batzuekin baino, berriz ere asmoa bada antzean euskararekin bideratzea, areago ere diskurtsoak eta praktikak (euskararen erabilerak) lotzen ez badira (edozein arlotan). Guzti honi buruz ere, badugu zer eztabaidatu beharra, nire ustez!

2. Eginkizun estrategian, praktikekin zer egin horretan, ordea, gutxi esanez gain, esaten dena eztabaidagarri jarriko nuke, berriz ere, zuzenean gurean bai/ez eta nola aplikatu baino lehen gure artean eztabaidatu eta adosteko. Hala ere, nolako praktikak bultzatu beharko genituzkeen, diskurtso berriak erabiliz gain, gizarteko gehiengo zabalak euskararen aldeotasuna lortzeko eta euskararen erabilerak arrunta eta normala lortzeko: iruditzen zait proposatzeko beste az-

---

**Diskurtso berrian, proposatzen dira zenbait aldaketa, denak gure artean eztabaidagai izatera proposatuko nukeena hemen:**

**1) berreskuratzetik → irabaztera pasatzera,**

**2) hizkuntzaz aldatzetik → norberak aukeratutako eta gidatutako eleaniztasunera,**

**3) integraziotik → adopziora (gutxienez zalantzan jarriko nukeena, gure kasuan behintzat),**

**4) biziraupenetik → ongizatera,**

**5) sakrifiziotik → saritutako ahaleginera,**

**6) Kataluniako berriazko hizkuntzatik → katalan guztien hizkuntzara.**



tergaia dela gure artean. Honen garrantzia handia delako ere (nire iritiz berriro ere), aipatu dut gorago, aurrekari egoki bezala, Kontseiluak argitaratutako liburua, hain zuzen ere adierazi nahi digulako noraino ezagutzen dugun euskararen erabilera ulertzeko erabili ditugun teoriak eta egin ditugun azterketak, neurri batean behintzat, horiekiko praktikak hobeto ulertzeko eta plangintzarako helburuekin.

### **4.3 Nolako lema aukeratu, euskararen aldeko helburua adierazteko diskurtso berrian?**

Halako gonbidapen modukoa aurkitzen dugu Txostenean, nolako lemarekin euskararen aldeko helburua erabili beharko genukeenari buruz proposamenak egiteko: "...Izan ere, egoerak deskribatzeko erabiltzen diren hitzak garrantzitsuak dira euskara hautemateko eta ulertzeko erak *framingak* hizpide ditugun lerro hauetan... Beraz, *euskararen bizi-raupenaren* ordeztu, zer hitz eman daiteke? Dagoeneko erabilia den *euskararen biziberritzea* izan liteke? *Euskara berpiztea*, agian? *Euskara sendotzea* edo *bizindartzea*...? ...egokia + itxaropentsua + liluragarria gerta litekeena" (73 or.). Hauez gain, beste lema batzuk ibili ohi dira, adibidez *bizikemena* (UEUk 2001ean argitaratutako liburu batean).

Honi erantzun nahian, bururatu zaizkit aurretik erabilitako antzeko lema batzuk, adibidez: 1) *Euskara Ahora!* (Psikologia Fakultatean, 1990 hamarkadan); *Euskaraz Bai* (zenbait dendetan, adibidez, 1990 eta 2000 hamarkadetan)...; 2) baina azkena ikusi dudana (irailean, berriro ere), AEK erakundeak 2012-2013 ikasturtearen matrikulazioari hasiera emateko erabili duen lema: "*Euskara bizia – Euskara en vivo*", neska irakasle gazte eta irribarretsu batek pankarta bat dantzatuz, "es la mejor opción para aprender y trabajar el euskara en vivo" arrazoia emanez, arrakastatsua gerta daitekeena: (1) bai mezua berarengatik, (2) baita nolako modua erabili dutenagatik ere.

Ikusten dudana da aurrekarien artean gehien erabiltzen diren hitzak BIZIA eta BIZITZA direla, euskararen aldeko lemetan: ez al zaio egunean garrantzi berezia ematen intuizioari?, intuizioak ez al ditu bideratzen zenbait berrikuntza? (gizarte-psikologiako metodologian onartzen dena, "abdukzioa" metodoan). Horregatik, oraingoz behintzat, nik proposatuko nukeen lema ere hauetako hitzak izango lukete: *Euskara Bizi* (?), *Euskaraz Bizi* (?), *Euskara Bizia da* (?), *Euskara Bizitza da* (?), *Bizitza Euskaraz* (?), *Euskararen Bizia* (...)? Beste hitz batzuk lema osatzerakoan izan daitezke euskaraz bizitzearekin lortzen den POZA, ONDO SENTITZEA (emozioen garrantzia azpimarratuz), esaterako; adibide batzuk ditugu 2012ko Kilometroak ere (2013ko martxoan) erabilitakoa: "Eman Euskara elkarri!".

Hala ere, komunikazioan, eta marketinean ere, badira zenbait ezau-  
garri kontuan eduki beharra, positibotasuna ondoan erabili beharreko  
beste ezaugarriak, efizientzia aldetik, adibidez harridura sortzearena;  
honen arabera, zergatik ez lemak sarri aldatu?, lema ezberdinak batera  
erabili?... Zorionez baditugu adituak komunikazioan eta marketinean,  
gure artean, (euskararen aldekoak izanez edo ez?) euskararen aldeko-  
tasuna indartzeko prest egongo direnak, beren kolaborazioa gertuago-  
tzeko: berriz ere, beste motako artekotasunaren beharra!

#### **4.4 Terminologia berritzea**

Berrikuntza bila gaudenez, terminologi teknikoari buruz ere badugu  
zer egina. Txostenean bertan komunikazioan erabiltzeko proposatzen  
den diskurtso berriaren ereduak baditu zenbait termino tekniko, inge-  
lesez mantendu direnak (teorizazioaren iturria ere ingelesez dagoelako),  
horiek euskaraz nola erabili edo jakiteko ditugun baliabide egokietan  
esku utziz (joera aberatsa dena): *framing* (Aldarrikatzailea, Uzkurra, Be-  
rria), *agenda setting*, *priming*, *primary frameworks*, *newsframe analysis*, *frame  
processing*...? Horien ondoan daude beste teknizismo ere ingelesez man-  
tendu direnak: *social sanction*, *social reward*...? Txostenean bezala, askotan  
gertatzen gara ingelesez, edo beste hizkuntza batean, teknizismo berrien  
aurrean: hauekin zeregin jakiteko, zein izango litzateke bide egokiena  
edo erabilgarriena guretzako, euskaraz nola erabili jakiteko?; uste dut,  
oraingoan ere baditugula jadanik bide egokiak (Euskaltzaindia, Elhuyar,  
UPV/EHU...): galdetzeko, eztabaidatzeko, adosteko, eta abar, bai? Orain  
gutxi argitaratu diren Euskaltzaindiko *Euskararen Hiztegia*, eta Eusko  
Jaurlaritzako *Soziolinguistika Hiztegia*. Euskal Soziolinguistikaren ere-  
muan erabiltzeko liburuak lagungarri izango zaizkigu ere honetan, pen-  
tsatzen dut.

Aztertu beharra nabaritzen da ere: zenbait teknizismo batzuetan  
modu nahasian erabiltzen direla oraindik ere, baina komeni dela modu  
argian, eta nahiko unibokoan ere?, erabiltzea. Adibidez:

1. Alde batetik, “komunitatea” teknizismoa dugu, Txostenean eta  
bestela ere: *hizkuntza-komunitatea*, *euskal-komunitatea*, *euskara-komu-  
nitatea*, *hiztunen-komunitatea*... Nola definitu bakoitza, erabilera uler-  
korra izateko?
2. Nola bereiztu teknizismo batzuk, bi hitzen bitartez osatzen dire-  
nean: 1) bi hitzak bakarka erabiliz?: euskal komunitatea, adibidez,  
2) ala bi hitzak gidoiarekin lotuta?: euskal-komunitatea adibidez.  
Oraingoz, badirudi “euskal-komunitatea” eta “euskal-identitatea”

ez direla onartzen gidoiarekin, baina “euskara-komunitatea” eta “euskara-identitatea” berriz bai, Txostenean ere: zergatik horrela?, zein da oinarritzko iritzia horrela egunean gertatzeko? Izan ere, nahiko ausarta izatea bada ere honi buruz hemen aipatzea, uste dut pena merezi duela gomendio argi batzuk izatea, ikusita horrelako beharra geroz eta handiago dela; adibidez: bi hitzak teknizismo bat bakarra osatzen dutenean, hitza konposatu moduan, eta izen propioa modukoa gertatzen denean oraindik gehiago, gidoiarekin lotzea ez al litzateke zuzenena?, hobeto arau batzuk denontzako egotea?

3. Berriro ere ikusten dut modu nahasian erabiltzen direla “nortasuna” eta “identitatea” teknizismoak. Honi buruz aspalditik, eta askotan, aipatu dut (BAT aldizkari honetan ere) bi hitz hauen arteko argitasuna egiteko beharra, teknizismo diren neurrian modu ahalik eta unibokoan erabiltzea komeni delako. Berriro ere joaten bagara bi hauen iturritara, ingelesez eta beste hizkuntza batzuetan euskaraz baino lehen, ikusten dugu ondo bereizten direla: 1) personality, personalité, personalidad → NORTASUNA (?); 2) identity, identité, identidad → IDENTITATEA (?). Bi teknizismo hauek, nahiz eta errealtatean zenbait artekotasun dituzten, gizarte zientzietan erabiltzerakoan ondo bereizten direnak dira, soziolinguistikan ere: zerbait egin hauekiko ere?

## **BUKATZEKO**

### **I**

Txostenari oso garrantzi handia ematen diot, egunean, gure artean zenbait ezagutza sozializatuz gain, zenbait berrikuntza proposamenekin datorkigulako. Horren garrantzi handia eman diodalako ulertu behar dira esaten ditudan gauza asko, batzuk nahiko ausartak izan daitezkeenak, beti ere zabaldu zaigun eztabaidarako bidea erabiliz. Orokorrean ados nago Txostenarengandik jasotzen ditugunarekin: 1) bai dugun berrikuntza beharra azpimarratzerakoan, 2) baita horretarako jasotzen ditugun bideak ere ikusterakoan. Horrek ez du esan nahi, ordea, zenbait hausnarketa, zalantza, galdera, kritika... ez zaizkidala sortu buruan, beti ere gauzak ahalik eta egokien bideratzeko nahian euskararen alde, iritzitan eta ekintzetan ere (nire ustez lotuta daudenak), batzuk eztabaidarako proposamen gisa jarri ditudanak hemen, beti Txostenarekin oinarritzko adostasun horren barruan kokatu behar direnak, helburu berdinak bultzatzeko egokiak direlakoan. Pozik oso horrelako lan bat aztertzeke aukera izategatik! ●